

Eibarko
Immigrazioa
eta Aniztasuna
Kudeatzeko
II. Planaren
EBALUAZIOA

2012 - 2016



AURKIBIDEA

1. Hitzaurrea	3
2. Egindako ekintzen betetze-mailaren analisia eta ebaluazioa	5
3. Online galdeketaren emaitzak	21
4. Ondorioak	29
I. ERANSKINA. Ebaluaziorako online galdeketa	31



1. HITZAURREA

Ebaluazio-txosten hau Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko kide Julia Shershnevak, Gorka Morenok eta Maite Fouassier-ek egin dute, Eibarko Udalaren Gizartekintza Sailak egindako lankidetzeta-eskabideari erantzunez.

Ondoren aurkezten dugun dokumentuan, Eibarko Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planaren (2012-2016) ebaluazioa bildu dugu. Bai plan horren helburuen balorazioa bai lau urteko denbora-tarte hartarako planifikatutako ekintzen balorazioa egiteko, ebaluazio honen helburuak zehazten dituzten honako agindu hauei jarraitu zaie:

- Ekintzen betetze-maila eta arrakasta analizatzea.
- II. Immigrazio Planaren testuingurua eta garapena ebaluatzea.
- II. Immigrazio Planean bildutako ekintzen lortze-maila eta arrakasta analizatzea.
- Ekintzetarako zer eragozpen egon diren detektatzea.
- Esparru horretan inplikaturako eragile instituzional eta sozialek II. Immigrazio Planari eta haren garapenari zer deritzoten jakitea.
- Etorkizunean abiaraziko den Elkarbizitza Planerako (2018-2022) ekintza-eremuak proiektatzea.

Horregatik, txostena bi zatitan banatuta dago:

- Lehen zatian, Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planeko ekintza guztiak daude bilduta, ekintza horien segimendu-adierazleekin eta emaitzarekin batera. Horrela, ondoriozta daiteke zein ekintzak bete dituzten gauzatze-helburuak eta zein ekintzak ez.
- Bigarren zatian, berriz, Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten langileei egindako inkesta (I. eranskina) analizatzen da. Galdeketak zenbait item ditu, jakiteko langileek zenbateraino dakiten Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planarekin loturiko zenbait alderdiri buruz: baliabide bakoitzak zer neurritan betetzen duen plana; ekintzetako zeini eustea eta ekintzetako zeintzuk txertatzea komeni den plan berrian; eta planaren balorazio orokorra.



2. EGINDAKO EKINTZEN BETETZE-MAILAREN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planaren ebaluazioaren lehen atal honetan, plana osatzen duten ekintzen multzoa dago bilduta.

Plana ebaluatzeko, ekintza horien segimendu-adierazleak eta ekintza horiek lortzeko gauzatutako eginkizun zehatzak hartu ditugu kontuan.

LEHENENGO HARRERA

HELBURU OROKORRA

Udalerrira iritsi berriak diren etorkinei harrera egitea, prozesua adostasunez eta koordinazioz sistematizatuta.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Inguruko baliabideei buruzko informazio eta orientazio egokiak bermatzea (etxebizitza, enplegua, prestakuntza, hezkuntza eta abar).

EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Udal harrera-protokolo bat sortzea, aurreikusitako harrera-ekintzak adostasunez eta koordinazioz identifikatuta eta argituta, baita inplikaturako eragile guztien erantzukizunak ere.	Sortutako protokoloa / Inplikaturako arloak, departamentuak eta eragileak.	2012	<p>Eibarren Bizi harrera-programa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ·2012an sortu zen. ·2014an, triptikoa 6 hizkuntzatan inprimatu zen, eta biztanleriari banatu zitzaion. <p>GU CONSULTORÍA SOCIAL: 2016an, GU CONSULTORÍA SOCIAL kontratatu, udalaren harrera-protokoloa sistematizatu eta Eibar Zabalik triptikoa hiru hizkuntzatan diseinatu zen.</p> <p>Eibarren Bizi:</p> <ul style="list-style-type: none"> ·2012: 123 arreta (58 gizon eta 65 emakume, 24 herrialde), 2 edizio. ·2013: 168 (81 gizon eta 87 emakume, 27 herrialde) 1 edizio. ·2014: 102 (56 gizon eta 46 emakume, 19 herrialde) 1 edizio. ·2015: 126 (63 emakume eta 63 gizon, 28 herrialde) 2 edizio. ·2016: 143 (74 gizon eta 69 emakume, 32 herrialde) 2 edizio.
Etorkinentzat baliagarriak izan daitezkeen baliabide eta informazioen gida bat sortzea eta Udalaren webgunean iraultzea.	Gida sortua	2013	<ul style="list-style-type: none"> ·2016: Francy Fonseca kontratatu zen gida sortzeko, 4 hizkuntzatan. ·2017: gida Udalaren webgunean iraultzeko eskabidea egin zen; 2016-2019rako dago aurreikusita ekintza hori.

EIBARKO IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANAREN (2012-2016) EBALUAZIOA

<p>Etorkinak informazioa ulertuko duela eta haren intimitatea gordeko dela bermatzeko moduko itzulpen-sistema batez (beste udalerrri batzuetako teleitzulpen-sistemaren antzekoa) hornitzeko aukera aztertzea. Hala badagokio, biztanle etorkinekin esku hartzen duten beste eragile batzuei -Gurutze Gorriari lehenengo harreran, hezkuntzan eta abarretan- sistema horretarako sarbidea emateko aukera aztertzea.</p>	<p>Itzulpen-sistemari buruz harturiko erabakia.</p>	<p>2016</p>	<ul style="list-style-type: none"> •2013: Udalaren eta EUDEL eta DUALIA erakundeen arteko akordioa. •2016: 210 minuturen itzulpena hitzartu zen, eta 124 minutu baliatu ziren (urdua, ukrania eta errumaniera).
<p>Harrera-sare informal bat sustatzea, bertako pertonekin eta jada errotuta dauden etorkinekin osatua.</p>	<p>Sarea osatzen duten pertsonen eta/edo elkarten kopurua / Egindako harrerak</p>	<p>2012-2016</p>	<ul style="list-style-type: none"> •Lau elkarte (AL TOYOR, NEPAL, SAFA, DIAPOLETE) eta partikularrak, itzulpenetarako laguntza, sostengua eta orientazioa. •Rahma Bensaliman, laguntza biztanleria musulmanari: Mendebaldeko Sahara (Moli), Senegal (Ballo Ndyae eta Modou Seye), Nepal (Sharmilak).

HELBURU ESPEZIFIKOA: Hasieran harrera-gizartera gerturatzeko bidea ematea.

EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
<p>Euskara ikasten hasteko ikastaroak eskaintzea atzerriko etorkinei; adibidez, Aisa programa.</p>	<p>Eskaintako ikastaroak / Parte hartzen duten pertsonen kopurua / Lortutako emaitzak.</p>	<p>2012-2016</p>	<ul style="list-style-type: none"> •2012: AISA programa, euskara ikasten hasteko. •2016: Euskara ikasten hasteko ikastaroak, Euskaltegiaren eta AL TOYOR elkartearen eskutik (11 emakume).
<p>Alfabetatze-eskola edo, halakorik ez badago, zehazki Eibarko eta oro har Euskal Herriko usadioei eta ohiturei buruzko mintzaldiak eta topaketak egitea (hemengo azturak, arau kulturalak, kodeak, konpromisoak eta abar).</p>	<p>Mintzaldien kopurua / Bertaraturiko pertsonen kopurua eta horien balorazioa.</p>	<p>2013</p>	<ul style="list-style-type: none"> •2012: Nagusilan, atzerriartasunari buruzko mintzaldia, 35 erretiratu izan ziren. •2013: Nagusilan, Esperientzia Eskola, 30 erretiratu. •2014: Nagusilan, 25 pertsona.
<p>Dauden baliabideen aurkezpen pertsonala eta/edo taldekoa, iritsi berri direnentzat.</p>	<p>Bisitaldien kopurua / Bertaratutako pertsonen kopurua eta horien balorazioa.</p>	<p>2013</p>	<p>Eibarren Bizi harrera-programa:</p> <ul style="list-style-type: none"> •2012-2014: ez dago daturik. •2015: 39 pertsona (21 gizon eta 18 emakume). •2016: 35 pertsona (25 gizon eta 10 emakume).

INTEGRAZIOA

HELBURU OROKORRA

Ahal den neurrian, etorkinen gizarteratzea eta laneratzea erraztea, eta etorkinak erabat eta askatasunez gizarteratu daitezen lortzeko prozesuan aurrera egitea.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Udalaren baliabideak, zerbitzuak eta prestazioak etorkinen ezaugarri zehaztutara egokitzea.

EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Udaleko arloen jarduerak, zerbitzuak eta prestazioak kulturarteko ikuspegi batetik berrikustea, etorkinen premia espezifikoen inguruan egon litezkeen sarbide-oztopoak edo egokitzapen-faltak identifikatzeko, eta, aldi berean, egokitzapen-proposamenak egitea.	Egindako berrikuspena / Txertatutako egokitzapenak.	2012-2016	Ez da gauzatu ebaluatutako denbora-tartean.
Batzorde transbertsal batek (immigrazioaren, euskararen eta berdintasunaren alorreko teknikariak) udal-informazioa hedatzeko euskarrietako testuen (webgunea, prentsa-oharrak, etab.) eta irudien berrikuspena, egin beharreko estilo-eskuliburu baten arabera.	Aukeraturiko eta banaturiko erreferentziazko estilo-eskuliburua / Egindako berrikuspenak / Txertatutako aldaketak.	2013-2016	Ez da gauzatu ebaluatutako denbora-tartean.
Udalaren webgunea egokitzea, etorkinentzat erabilerrazak eta interesekoak diren edukiak bilduta.	Webgune egokitua / Finkatutako edukiak.	2013	Sortutako edukiak: Eibar Zabalik Facebooken eta Twitterren.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Bi hizkuntza ofizialen ikasbidea erraztea.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
AISA programaren berrikuspena, etorkinen premiak benetan bete ditzan, etorkinek euskara ikasten jarrai dezaten lortzeko bestelako laguntza batzuk baloratuta.	Egindako gogoeta.	2013	<ul style="list-style-type: none"> • Alternatibak: Euskera Plus: zuzeneko matrikula AISA programako euskara-ikastaro batean, baita ikastaro osoan ere. • 2016: Euskara ikasten hasteko ikastaroak, Euskaltegiaren eta AL TOYOR elkartearen eskutik (11 emakume).
Hizkuntza-boluntariotza sustatzea (hizkuntza-bikoteak gaztelaniaz, HHEn gaztelania ikasten ari diren pertsonekin; Mintzalaguna programa, euskararen kasuan, AISA programari jarraipena emateko).	Abiarazitako programa / Sortutako bikoteen kopurua / Balorazioak.	2014	<ul style="list-style-type: none"> • 2013: Berriketan programaren sorkuntza (hizkuntza-boluntariotza). • Debabarreneko Esperientzia Eskola eta HHE (30 pertsona eta 15 bikote). • 2014: «European Web Site on Integration» Europar Batzordearen webgunean argitaratu zen, jardunbide egoki gisa. • 2016: Eta Kitto! elkarteak bere programarekin jarraitzen du.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Arrisku eta ahulezia handieneko etorkinei arreta berezia ematea.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Arrisku handieneko egoeran dauden etorkinen gizarteratzeko hitzarmenak egingo direla eta halako biztanleriari segimendu egokia egingo zaiola bermatzea.	Egindako gizarteratze-hitzarmenak / Segimendurako hitzorduen maiztasuna.	2012-2016	Legeriaren aldaketa: gutxienez duela hiru urtetik erroldatuta egotea DSBEa (diru-sarrerak bermatzeko errenta) eskuratzeko.
Arrisku handieneko egoerak arintzeko balioko luketen tokiko edota eskualdeko larrialdi-baliabideez hornitzeko ekimenak behar ote diren aztertzea eta, beharrezkoak badira, horietan laguntzea, Gizarte Zerbitzuen Legean jasota dagoen bezala.	Lagundutako ekimenen kopurua.	2014	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-diagnosia. Prestazio berrien zorroa. • Etxerik gabeko pertsonen kopurua 2016an. • Immigrazioko teknikariaren arreta-estatistikak: <ul style="list-style-type: none"> 2012 (123 kasu, 43 gizarte-sustraitze, 16 berrelkartze, 16 berritze). 2013 (168 kasu, 40 gizarte-sustraitze, 31 berrelkartze, 20 berritze). 2014 (102 kasu, 33 gizarte-sustraitze, 14 berrelkartze, 8 berritze). 2015 (126 kasu, 24 gizarte-sustraitze, 14 berrelkartze, 28 berritze). 2016 (143 kasu, 45 gizarte-sustraitze, 15 berrelkartze, 7 berritze).

HELBURU ESPEZIFIKOA: Etorkinen laneratzea faboratzea.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Tokiko enpresaburuentzat, estereotipoak baztertzeko eta kontratazioa sustatzeko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak babestea.	Sentsibilizazio-ekintzen kopurua.	Indibidualizatua 2012-2016 Zehaztu beharreko kanpainak.	Prestakuntza , lan-eskubideei buruzkoa, Liz Quintanaren eskutik, etxeko langileentzat: ·50 emakumeri eta 3 gizoni etxeko langileen erregimen bereziaren eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa eman zitzaien.
Enplegu-planen barruan, Lanbiderekin batera lan egitea, lan-prestakuntza elkarrekin eskaintzeko, dauden enplegu-hobi nagusietarako, betiere prestakuntza hori etorkien premietara egokituta, eta, behar izanez gero, lan-kulturari eta lan-esparrura gerturatzeari buruzko ikastaroak eskaintzea, lantegi eta enpresetara begira, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen desplazamendurako laguntzen eta abarren inguruko informazioa eskainita.	Eskainitako prestakuntza-ekintzen kopurua.	Lanerako prestakuntza 2012-2016 Lan-kulturari, lan-esparrura gerturatzeari eta abarri buruzko ikastaroak. 2014-2016	Deribazioak Lanbide, Armeria, Debegesa, Kutxa Zeharo eta Gurutze Gorria erakundeetara. Trabak egon ziren erakundeen arteko koordinazioan, eta administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzat ezinezkoa zen prestakuntzan sartzea.
Enpresa edo negozioren bat abiaraztea aurreikusten duten pertsona ekintzaileei banan-banan lagun egiteko neurriak bermatzea.	Negozio propio bat finkatzeko aholkua eskatu zuten, eta arreta eman zitzaien etorkinen ehunekoa.	2012-2016	1.000 euroko laguntza eman zuen Debegesa sozietateak.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Etorkinek etxebizitza eskuratzeko dituzten posibilitateak hobetzea, gainerako herritarrek dituzten kondizio berberetan.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Etorkinei babes ofizialeko etxebizitzei buruzko informazioa ematea, eta bertako pertsoneri, berriz, Bizigune programari buruzkoa, etxebizitza hutsen mobilizazioa laguntzeko.	Egindako informazio-ekintzak / Informazioa eman zaien pertsonen kopurua.	2012-2016	2017/2018: Aurreikusita dago etxebizitzaren testing bat egitea, Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkartearekin lankidetzan.
Ostatu- eta erroldatze-formulei eta prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko informazioa argitzea.	Egindako informazio-ekintzen kopurua.	2012 (Harrera-protokoloari atxikia)	Ez dago informaziorik.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Integrazioa indartzea eskola-eremuan.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Eskola-eremuan sentsibilizazio-proiektuak garatzea.	Garatutako proiektuak / Arreta eman zaien pertsonen kopurua.	2012-2016	2016: sentsibilizazio-lantegien prozesua, EMUN sozietatearekin abiarazia, ez zuen aurrera egin.
Ikastetxeetatik kanpo hizkuntza sendotzeko proiektuak abiarazteko aukera baloratzea.	Egindako balorazioa / Abiarazitako zerbitzua.	2016	2016: Ongi Etorri Euskarara.

BIZIKIDETZA

HELBURU OROKORRA

Eibarren kulturarteko bizikidetza sustatzea, eta gure herrian bizi diren etorkinek eta bertakoek elkar ezagutzea.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Etorkinen asoziazionismoa sortzeko eta indartzeko ekintzak babestea.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Boluntariotza sustatzeko ekintzak gauzatzea.	Egindako ekintzen kopurua.	2015	<ul style="list-style-type: none"> · Etixerik gabeko pertsonen zenbaketa, etorkinen elkarten eskutik. · Bizilagunak ekimena (Gipuzkoako SOS Arrazakeria eta Mugak): <ul style="list-style-type: none"> · 2012: 3 otordu, 6 familia eta 30 pertsona. · 2015: 1 otordu, 10 pertsona. · 2016: 3 otordu, 3 familia eta 35 pertsona.
Etorkinen elkarte informalei eta gizarte-mugimenduei informazioa ematea eta lagun egitea, asoziazionismo formalaren eta elkarteak eratzeko aukeraren inguruan.	Emandako informazioen kopurua / Lagun egin zaien elkarten kopurua / Eratutako entitateen kopurua.	2012-2016	<ul style="list-style-type: none"> · 2016: bilerak Senegalgo eta Nepalgo komunitateekin, elkarteak sortzeko. · 2 elkarte berriren sorrera (Diapo Lete eta Nepaldarren Elkarte) (Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorra, Eusko Jaurlaritzarena). · 2017: Elkarteei zuzendutako oinarrizko prestakuntza, Francy Fonsecaren (Gu Consultoría Social) ardurapean, 4 elkarterekin. Urteko jarduera-planaren sorkuntza (Al Toyor, Diapo Lete, Senegal eta Nepal).
Udalerriko elkarteekin bitartekotza-lana egitea, etorkinen premia eta interesetara egokituta egon daitezen, eta etorkinak elkarteetan sar daitezen saiatzeko.	Egindako bileren kopurua.	2015	<ul style="list-style-type: none"> · Ongi Etorri Berbetanera Programa: Eta Kitto! euskara elkarte kontratatu zen. 2016-2017ko jarduera-programa egin zen; kulturartekotasunarekin eta euskararekin loturiko ekintzak biltzen zituen. Azkenean, ez zen kulturartekotasun-jarduerarik egin.
Etorkinek eta etorkinen elkarteek beren jatorrizko kulturari eusteko eta hura transmititzeko ekimenak babestea.	Babestutako ekintzak.	2012-2016	<ul style="list-style-type: none"> · 2016-2017: ez zen onartu Safa elkarteak proposatutako bi ekintzetako ezein (islamofobiaren kontrako gida eta ramadanaren amaierako jaia). · 2015-2016: ez zen onartu Nepalگو komunitateak proposatutako bi ekintzetako ezein (musika CDa eta Dashain jaialdia).

HELBURU ESPEZIFIKOA: Kulturei –bertakoari eta atzerrikoiei– laguntzea bata bestera gerturatzen eta elkar topatzen.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Kulturen Festa egitea, antolakuntzan eragile interesdun guztiak biltzen saiatuta, haren edukia egokitze aldera, folkloreak harantzagoko alderdiak izan ditzan.	Egindako jardueren kopurua.	2012-2016	<ul style="list-style-type: none"> • 2012: Kulturen Festa. • 2013: LACASIUN elkartearen sanjuanetan. • 2015: Kulturen Festa (Al Toyor, Nepal, Safa, Lacasiun, Senegal), 500 pertsona. • 2016: Senegal-Euskal Herria jaia, txalaparta eta djembea, 250 pertsona, eta etorkinen elkarte guztien partaidetza (Eta Kitto!, CARE eta Sahara Elkarte).
Kulturen arteko topaguneak –bai fisikoak (Andretxea) bai puntualak (kirol-ekintzak eta beste)– sortzeko aukera baloratu.	Sorturiko topaguneen kopurua / Parte hartu duten pertsonen kopurua.	2015	Topaguneen falta: elkartearen bilerak AL TOYOR elkartearen lokalean egiten dira, lokala duen elkarte bakarra baita.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Immigrazioaren errealitatea –globala eta tokikoa– herritarrei jakinaraztea.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Gure udalerrian sentsibilizaziorako eta zurrumurruren aurkako kanpaina bat egitea immigrazioaren inguruan, Eibarren beraren iragana kontuan hartuta eta benetako datuak emanda.	Egindako kanpaina.	2012-2016	<ul style="list-style-type: none"> • 2013: Aurreiritzi eta Estereotipoak Desegiten I. Jardunaldiak (SOS Arrazakeria–Bartzelonako Xarxa Antirumors), 4 saio, saio bakoitzera joandako pertsonak: 50 (batez beste). • 2014: Aurreiritzi eta Estereotipoak Desegiten II. Jardunaldiak (SOS Arrazakeria), 3 saio; ez zen jaso zenbat lagun bertaratu ziren. Zenbait udalerrik osatu zuten sarea: Getxo, Zarautz...). • 2015: Zurrumurruek III. Jardunaldiak (SOS Arrazakeria, Xabier Aierdi eta Agustin Unzurrunzaga), 3 saio; 10 pertsona bertaratu ziren, gutxi gorabehera.
Eibarren bizi diren etorkinen komunitateak, haien ohiturak eta kultura ezagutzera ematea, zenbait ekintzaren bitartez: Kulturen Festa, Munduko Paisaiak, etab.	Egindako ekitaldien kopurua.	2012-2016	<ul style="list-style-type: none"> • 2014: Munduko Paisaiak monografikoa: Nepal (liburutegia). • 2015: Munduko Paisaiak kanpaina: Kulturartekotasuna (Biltzen/liburutegia).

EIBARKO IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANAREN (2012-2016) EBALUAZIOA

<p>Oroitzapenezko deklarazio instituzionalak egitea eta zabaltzea (Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna; Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna; Migratzailearen Nazioarteko Eguna, etab.), eta etorkinak bertako deklarazioekin bat egitera animatzea (Euskararen Nazioarteko Eguna...).</p>	<p>Egindako deklarazioen kopurua.</p>	<p>2012-2016</p>	<ul style="list-style-type: none"> •2013: Martxoaren 21a zela eta, Eibarko Udalak manifestu bat onartu zuen lehen aldiz, alderdi politiko guztien adostasunez, arrazakeria- eta xenofobia-ekintzak gaitzesteko eta kultura-aniztasuna balioesteko. •2013: Zine-foruma, abenduaren 18a, Biltzen elkartearekin: <i>L'italien</i>, 60 pertsona. •2014: Zine-foruma, abenduaren 18a, SOS Arrazakeria elkartearekin, Balta txuria. Balta berdea. <i>Urumeako zurrumurrua</i>, 25 pertsona. •2015: Jazz Jaialdia Biharran-en eta II. Planaren ebaluazioa (bertaratuak: 15 pertsona). •2016: Migratzailearen Nazioarteko Eguna, Senegalgo Jaia, (bertaratuak: 250 pertsona).
<p>Etorkinen artean dauden jardunbide egokiak aitortzeko ekintzak gauzatzea.</p>	<p>Egindako ekintzen kopurua.</p>	<p>2015</p>	

HELBURU ESPEZIFIKOA: Etorkinen gizarte-partaidetza sustatzea udalerrian.

EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
<p>Etorkinak partaidetza-gune guztietara gonbidatzen direla bermatzea, bereziki, emakumeak.</p>	<p>Egindako gonbidapenak / Parte hartu duten etorkinen kopurua.</p>	<p>2012-2016</p>	<p>Transbertsala.</p>
<p>Udalerrian immigrazio-alorrean diharduten eragile guztien partaidetza eta koordinazioa bermatuko duen Immigrazio Mahai bat sortzea udalerrian.</p>	<p>Mahaiaren sorrera / Parte hartu duten pertsonen/ eragileen kopurua / Egindako bileren kopurua.</p>	<p>2012</p>	<p>Ez da gauzatu ebaluatutako denbora-tartean.</p>

GURE BARNE-ANTOLAMENDUA

HELBURU OROKORRA

Udalaren eta haren arloen funtzionamendu-dinamikak eta antolamendu-egitura egokitzea, plana behar bezala aurrera eramateko.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Antolamendu-egitura egokia edukitzea immigrazioaren alorrean.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Gizartekintza Arloak dituen giza baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin, plan hau sustatzea.	Bideratutako baliabideak.	2012-2016	Ez da gauzatu ebaluatutako denbora-tartean.
Plan honetan esku hartzen duten udaleko arloek beraiei dagozkien ekintzak egiteko behar den aurrekontuaren zatia bideratzea.	Baliabideak bideratzen dituzten arloen kopurua / Bideratutako baliabideak.	2012-2016	Ez da gauzatu ebaluatutako denbora-tartean.

HELBURU ESPEZIFIKOA: Adaptar la formación y los recursos disponibles a la realidad de la población inmigrante			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Langile teknikariei eta politikariei immigrazio-prestakuntza eskaintzea, eta, ahal dela, baita inguruan diharduten beste eragile batzuei ere.	Egindako prestakuntza-ekintzak / Bertaratutako langileen kopurua.	2012-2016	<ul style="list-style-type: none"> ·2012: BILTZENek antolatutako prestakuntza, Eibarko Udaleko langileentzat: <ul style="list-style-type: none"> «Atzerriko immigrazioari buruzko diskurtsoen analisisia»; 3 h, 15 pertsona. «Administratu berrien gako kulturalak-Pakistan», 5 h, 15 pertsona. ·2013: BILTZENek antolatutako prestakuntza, Eibarko Udaleko langileentzat: <ul style="list-style-type: none"> «Kulturarteko eskumena», 10 h, 10 pertsona.

EIBARKO IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANAREN (2012-2016) EBALUAZIOA















HELBURU ESPEZIFIKOA: Esku hartzen duten eragile guztien eta, oro har, herritarren artean Immigrazio Plana hedatzea.			
EKINTZA	SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	GAUZATZEKO EPEA	
Behin plana eginda dagoela, hari buruzko aurkezpen-jardunaldi bat egitea.	Egindako jardunaldia / Bertaratutako pertsonen edo eragileen kopurua.	2012	Immigrazioaren Itun Sozialari buruzko eztabaida/topaketa: 33 gizarte-erakunde (kirolaren, kulturaren, hezkuntzaren eta lanaren alorrekoak, politikoak eta sindikalak); bertaratuak: 45 pertsona.
Plana udalaren webgunean argitaratu.	Plana webgunean argitaratua / Bisitaldien, sarbideen eta deskargen kopurua.	2012; 2013an immigrazio-espazioan erantsita.	Bizikidetza plana, Eibarko Udalaren webgunean eskura daiteke.
Planaren indarraldia amaitu ondoren, egindako lanaren eta lortutako emaitzen balorazio-jardunaldi bat egitea.	Egindako jardunaldia / Bertaratutako pertsonen edo eragileen kopurua.	2016	2017an egina.





























II. Plan hau osatzen duten ekintzen bilduma eta ebaluazioaren gehigarri gisa, ondorengo koadro-laburpen honetan bi ideia balioesten eta jasotzen ditugu.

























- Lehenengoa, egindako ekintza bakoitza modu eraginkor batean egin baldin bada, alegia, ebaluazio-adierazleetan eta ondorengo abiaraztean sostengatuz, hau horrela egin den kasuetan, garapen positibo bat identifikatu daiteke.
- Eta bigarrenik, ekintza horrek etorkizunean lekua izango lukeen.













Koloreen aukeraketak ondorengo arrazonamenduari erantzuten dio:

BERDEA	LARANJA	GORRIA
		
EKINTZAREN GARAPEN ERAGINKORRA	EKINTZAREN GARAPEN PARTZIALA	EKINTZARIK EZ EDO BUKATU GABEA
HONEK ETORKIZUNERA BEGIRA IZAN DEZAKEEN JARRAIKOTASUNAREKIKO BALORAZIO POSITIBOA	ETORKIZUNERA BEGIRA JARRAITZEKO INTENTZIOA BAINA HONEN PLANTEAMENDUAN ZENBAIT KONTU EDO ALDAKETEKIN	ETORKIZUNERA BEGIRA EZ DAGO JARRAIKOTASUNIK

EKINTZAK	GARAPEN ERAGINKORRA	JARRAIKOTASUNA ETORKIZUNEAN
LEHENENGO HARRERA		
Udal harrera-protokolo bat sortzea, aurreikusitako harrera-ekintzak adostasunez eta koordinazioz identifikatuta eta argituta, baita inplikaturako eragile guztien erantzukizunak ere.		
Etorkinentzat baliagarriak izan daitezkeen baliabide eta informazioen gida bat sortzea eta Udalaren webgunean iraultzea.		
Etorkinak informazioa ulertuko duela eta haren intimitatea gordeko dela bermatzeko moduko itzulpen-sistema batez (beste udalerrri batzuetako teleitzulpen-sistemaren antzekoa) hornitzeko aukera aztertzea. Hala badagokio, biztanle etorkinekin esku hartzen duten beste eragile batzuei –Gurutze Gorriari lehenengo harreran, hezkuntzan eta abarretan– sistema horretarako sarbidea emateko aukera aztertzea.		
Harrera-sare informal bat sustatzea, bertako pertsonekin eta jada errotuta dauden etorkinekin osatua.		
Euskara ikasten hasteko ikastaroak eskaintzea atzerriko etorkinei; adibidez, Aisa programa.		
Alfabetatze-eskola edo, halakorik ez badago, zehazki Eibarko eta oro har Euskal Herriko usadioei eta ohiturei buruzko mintzaldiak eta topaketak egitea (hemengo azturak, arau kulturalak, kodeak, konpromisoak eta abar).		
Dauden baliabideen aurkezpen pertsonala eta/edo taldekoa, iritsi berri direnentzat.		

EKINTZAK	GARAPEN ERAGINKORRA	JARRAIKOTASUNA ETORKIZUNEAN
INTEGRAZIOA		
Udaleko arloen jarduerak, zerbitzuak eta prestazioak kulturarteko ikuspegi batetik berrikustea, etorkinen premia espezifikoen inguruan egon litezkeen sarbide-oztopoak edo egokitzapen-faltak identifikatzeko, eta, aldi berean, egokitzapen-proposamenak egitea.		
Batzorde transbertsal batek (immigrazioaren, euskararen eta berdintasunaren alorreko teknikariak) udal-informazioa hedatzeko euskarrietako testuen (webgunea, prentsa-oharrak, etab.) eta irudien berrikuspena, egin beharreko estilo-eskuliburu baten arabera.		
Udalaren webgunea egokitzea, etorkinentzat erabilerrazak eta interesekoak diren edukiak bilduta.		
AISA programaren berrikuspena, etorkinen premiak benetan bete ditzan, etorkinek euskara ikasten jarrai dezaten lortzeko bestelako laguntza batzuk baloratuta.		
Hizkuntza-boluntariotza sustatzea (hizkuntza-bikoteak gaztelaniaz, HHEn gaztelania ikasten ari diren pertsonekin; Mintzalaguna programa, euskararen kasuan, AISA programari jarraipena emateko).		
Arrisku handieneko egoeran dauden etorkinen gizarteratzeko hitzarmenak egingo direla eta halako biztanleriari segimendu egokia egingo zaiola bermatzea.		
Arrisku handieneko egoerak arintzeko balioko luketen tokiko edota eskualdeko larrialdi-baliabideez hornitzeko ekimenak behar ote diren aztertzea eta, beharrezkoak badira, horietan laguntzea, Gizarte Zerbitzuen Legean jasota dagoen bezala.		
Tokiko enpresaburuentzat, estereotipoak baztertzeko eta kontratazioa sustatzeko sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak babestea.		
Enplegu-planen barruan, Lanbiderekin batera lan egitea, lan-prestakuntza elkarrekin eskaintzeko, dauden enplegu-hobi nagusietarako, betiere prestakuntza hori etorkien premietara egokituta, eta, behar izanez gero, lan-kulturari eta lan-esparrura gerturatzeari buruzko ikastaroak eskaintzea, lantegi eta enpresetara begira, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonen desplazamendurako laguntzen eta abarren inguruko informazioa eskainita.		
Enpresa edo negozioren bat abiaraztea aurreikusten duten pertsona ekintzaileei banan-banan lagun egiteko neurriak bermatzea.		
Etorkinei babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko informazioa ematea, eta bertako pertsonen, berriz, Bizigune programari buruzkoa, etxebizitza hutsen mobilizazioa laguntzeko.		
Ostatu- eta erroldatze-formulei eta prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko informazioa argitzea.		
Eskola-eremuan sentsibilizazio-proiektuak garatzea.		
Ikastetxeetatik kanpo hizkuntza sendotzeko proiektuak abiarazteko aukera baloratzea.		


EKINTZAK	GARAPEN ERAGINKORRA	JARRAIKOTASUNA ETORKIZUNEAN
BIZIKIDETZA		
Boluntariotza sustatzeko ekintzak gauzatzea.		
Etorkinen elkarte informalei eta gizarte-mugimenduei informazioa ematea eta lagun egitea, asoziazionismo formalaren eta elkarteak eratzeke aukeraren inguruan.		
Udalerriko elkarteekin bitartekotza-lana egitea, etorkinen premia eta interesetara egokituta egon daitezen, eta etorkinak elkarteetan sar daitezen saiatzeko.		
Etorkinek eta etorkinen elkarteek beren jatorrizko kulturari eusteko eta hura transmititzeko ekimenak babestea.		
Kulturen Festa egitea, antolakuntzan eragile interesdun guztiak biltzen saiatuta, haren edukia egokitze aldera, folkloreak harantzagoko alderdiak izan ditzan.		
Kulturen arteko topaguneak -bai fisikoak (Andretxea) bai puntualak (kirol-ekintzak eta ekintza kulturalak, bestea beste)- sortzeko aukera baloratu.		
Gure udalerrian sentsibilizatorako eta zurrumurruen aurkako kanpaina bat egitea immigrazioaren inguruan, Eibarren beraren iragana kontuan hartuta eta benetako datuak emanda.		
Eibarren bizi diren etorkinen komunitateak, haien ohiturak eta kultura ezagutzera ematea, zenbait ekintzaren bitartez: Kulturen Festa, Munduko Paisaiak, etab.		
Oroitzapenezko deklarazio instituzionalak egitea eta zabaltzea (Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna; Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna; Migratzailearen Nazioarteko Eguna, etab.), eta etorkinak bertako deklarazioekin bat egitera animatzea (Euskararen Nazioarteko Eguna...).		
Etorkinen artean dauden jardunbide egokiak aitortzeko ekintzak gauzatzea.		
Etorkinak partaidetza-gune guztietara gonbidatzen direla bermatzea, bereziki, emakumeak.		
Udalerrian immigrazio-alorrean diharduten eragile guztien partaidetza eta koordinazioa bermatuko duen Immigrazio Mahai bat sortzea udalerrian.		

EKINTZAK	GARAPEN ERAGINKORRA	JARRAIKOTASUNA ETORKIZUNEAN
GURE BARNE-ANTOLAMENDUA		
Gizartekintza Arloak dituen giza baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin, plan hau sustatzea.		
Plan honetan esku hartzen duten udaleko arloek beraiei dagozkien ekintzak egiteko behar den aurrekontuaren zatia bideratzea.		
Langile teknikariei eta politikariei immigrazio-prestakuntza eskaintzea, eta, ahal dela, baita inguruan diharduten beste eragile batzuei ere.		
Behin plana eginda dagoela, hari buruzko aurkezpen-jardunaldi bat egitea.		
Plana udalaren webgunean argitaratu.		
Planaren indarraldia amaitu ondoren, egindako lanaren eta lortutako emaitzen balorazio-jardunaldi bat egitea.		


3. ONLINE GALDEKETAREN EMAITZAK

Txosten honen lehen zatian aurkezten den informazioa osatzeko eta, halaber, Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planaren lortze- eta arrakasta-mailan inplikaturako eragileen iritzia zein den zuzenean jakiteko, galdeketa bat banatu da, ebaluazio honetarako oso baliotsuak diren galderekin. Horretarako, 2017ko urria eta azaroan galdeketa igorri zituen Immigrazio eta berdintasuneko teknikariak, jendeari parte hartzeko eskatuta. Guztira, betetako 55 galdeketa jaso dira; % 43,6, toki-administrazio langileek bidali zituzten; % 21,8, berriz, irabazi-asmorik gabeko entitateekin (batzuk, immigrazioarekin zuzenean lotutakoak, eta beste batzuk, ez) erlazionatuta zeuden; % 16,4, bestalde, tokikoa ez den administrazioen batean lan egiten duten pertsonen bidali zituzten; % 9,1, sektore pribatuko langileek; eta % 5,5, azkenik, Eibarko Udaleko langile politikariek.


1. GRAFIKOA. INKESTATUTAKO PERTSONEN BANAKETA, NON LAN EGITEN DUTEN KONTUAN HARTUTA.



Inkestatutakoen adinari dagokionez, gazteenak 27 urte zituen eta zaharrenak, berriz, 76 urte; zehazki, 2. grafikoan -behekoan- ikus daiteke banaketa. Ikus dezakegun bezala, 27-45 urtekoak dira % 43,7; 46-62 urtekoak % 47,3; eta 68-76 urtekoak, azkenik, % 7,3 baino ez dira. Adinari gagozkiola, parte hartu dutenen pertsonen % 83,6 emakumeak ziren, eta % 16,4, gizonak.

2. GRAFIKOA. INKESTATUTAKO PERTSONEN BANAKETA, ADINAREN ARABERA.

Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Plana ezagutzen duten galdetzean, inkestatutakoen laurdenek esan dute bazeukatela haren berri; erdiek, berriz, esan dute ez zutela halako ezein planen berri; % 21,8ri, azkenik, «ez daki/ez du erantzun» dagokio. Horrenbestez, inkestatutako pertsonen % 25,5ek planaren eta haren eginkizun zehatzen gaineko jakintza ebalua dezakete, ondoren ikusiko dugun bezala. Alderdi hori garrantzitsua da; izan ere, lagina osorik kontuan hartzen badugu, planaren berri duten pertsonak gutxi dira, eta komentatzen ari garen emaitzak zuhurtasun metodologikoarekin hartu behar dira.

3. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANARI BURUZKO EZAGUTZA.

Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Plana ezagutzen duten pertsonen modu honetara izan dute haren berri¹:

- Immigrazio Sailaren bitartez.
- Eibarko datu soziodemografikoen bila ari nintzela, eduki behar ditugun diagnosien parte modura.
- Barne-koordinazioa.
- II. Immigrazio Plana gizarte-zerbitzuen barruan dago, eta nire lantokia da.
- Immigrazio Sailak Eibarko Udalarekin elkarlanean antolaturiko jardueretan parte hartu dugu.
- Immigrazioko teknikariak aurkeztu zuen.
- Planean lanean ari naiz.
- Langileen bidez.
- Eibarko Udalaren Gizartekintza Sailean egindako hedapenaren bitartez.
- Plana sustatzeko ardura duen sailaren zuzendaritzak aurkeztu zuen.

¹ Inkestatutako pertsonen esandakoa hitzez hitz jaso da zerrenda hau egiteko.

Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planean jasotako ekintza guztiak zerrendatu ondoren, 1. taulan -behean- hauek jaso dira: zer ekintzatan hartu duten parte inkestatutako pertsonen artean plana ezagutzen dutenek; ekintza horietako bakoitzaren batez besteko puntuazioa, garrantziaren arabera; eta zer erakunderi dagokion horietako bakoitza.

1. TAULA. II. PLANEKO EKINTZAK, HORIEN GARRANTZIA ETA ERAKUNDE EBALUATZAILEA.

	EKINTZAK	Bai		GARRANTZIA	ARDURADUNAK
		N	%		
LEHENENGO HARRERA	Harrera-protokoloa eratzea	2	3,6	8	Toki administrazioa
	Baliabideen eskuliburua osatzea	2	3,6	8,5	Toki administrazioa
	Itzulpen-sistema jartzerik dagoen aztertzea	0	0,0		
	Harrera-sare ez formala bultzatzea	0	0,0		
	Euskarara hurbiltzeko ikastaroak eskaintzea	1	1,8	6	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Alfabetatzeko eskola antolatzea	0	0,0		
	Etorri berriei baliabideen aurkezpen pertsonalizatua egitea	2	3,6	9	Toki administrazioa
INTEGRAZIOA	Udal Sailen jarduera, zerbitzuak eta prestazioak aztertzea	3	5,5	6	Toki administrazioa
	Udal informazioa hedatzeko euskarrien testuak eta irudiak berrikustea	1	1,8	7	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Udal Web-orria egokitzea	0	0,0		
	AISA programa berrikustea	1	1,8	7	Toki administrazioa
	Hizkuntza-boluntarioen parte hartzea sustatzea (Euskara eta erdera)	1	1,8		Toki administrazioa
	Gizarteratzeko hitzarmenak egitea	0	0,0		
	Larrialdietarako baliabideak izateko ekimenen beharra aztertzea	0	0,0		
	Enpresarientzako sentsibilizazio eta informazio-kanpainak babestea	0	0,0		
	Lan-formazioa eskaintzea	0	0,0		
	Laguntza pertsonalizatua bermatzea ekintzaileei	0	0,0		
	Babes ofizialeko etxebizitzetxei buruzko informazioa eta Bizigune programari buruzko informazioa ematea	2	3,6	8,5	Toki administrazioa
	Bizitokiari buruzko informazioa argitzea eta baita diru-laguntza eta zerbitzuei buruzkoa ere	2	3,6	8,5	Toki administrazioa
	Sentsibilizazioa garatzea eskolaren esparruan	0	0,0		
	Ikastetxeetatik kanpo, hizkuntza indartzeko proiektuak martxan jartzeko aukerak baloratzea	1	1,8	7	Toki administrazioa

EIBARKO IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANAREN (2012-2016) EBALUAZIOA

	EKINTZAK	Bai		GARRANTZIA	ARDURADUNAK
		N	%		
BIZIKIDETASUNA	Boluntarioria sustatzea	1	1,8	8	Toki administrazioa
	Elkartegintza formalari eta elkarte arautua bihurtzeko aukerei buruzko informazioa eta babesa ematea	1	1,8		Toki administrazioa
	Herriko elkarteekin bitartekaritzalanak egitea	1	1,8	8	Toki administrazioa
	Kulturak transmititzeko ekimenak babestea	1	1,8	9	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Kulturen Festa antolatzea	1	1,8	9	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Kulturen arteko elkarte-guneak sortzea aintzat hartzea	1	1,8	9	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Zurumurruren kontrako sentsibilizazio kanpaina burutzea	1	1,8	8	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Etorrin komunitateen ezagutza sustatzea	1	1,8	8	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Oroitzapenezko deklarazio instituzionalak egitea eta zabaltzea	0	0,0		
	Jokabide onak aitortzeko ekintzak burutzea	1	1,8	9	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Parte-hartze gune guztietan etorkinek bertarako gonbita izango dutela bermatzea	4	7,3	9	Toki administrazioa Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Immigrazio Mahaia sortzea	1	1,8	8	Irabazi asmorik gabeko erakundea
BARNE-ANTOLAMENDUA	Plan hau bultzatzea	0	0,0		
	Udal Sailek aurrekontuko partida egokia gordetzea dagozkien ekintzak garatzeko	0	0,0		
	Teknikariei eta politikoei immigrazio arloko formazioa eskaintzea	0	0,0		
	Planaren aurkezpen-jardunaldia egitea	1	1,8	7	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Plana Udalaren web-orrian jartzea	1	1,8	8	Irabazi asmorik gabeko erakundea
	Planaren emaitzak baloratzeko jarduna burutzea	1	1,8	6	Irabazi asmorik gabeko erakundea

1. taulako datuen barruan, nabarmentzekoa da Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Plana ezagutzen zuten pertsonen inkestatutako % 25,5ek adierazi dutela ebaluatoriko ekintza guztiei eutsi behar zaiela hurrengo planean; izan ere, ekintza horietako ia guztiei balorazio altua eman zaie. 1etik 10erainoko eskala batean, kontuan izanik 1ek «batere garrantzitsua ez» esan nahi duela eta 10ek «erabat garrantzitsua», erantzunen batezbestekoa 7,9 puntukoa da. Bestalde, plana toki-administrazioko eta irabazi-asmorik gabeko entitateetako eragileek baino ez dute ezagutzen; zehazki, irabazi-asmorik gabeko entitateek presentzia handiagoa dute «bizikidetz» eta «barne-antolamendua» jardura-lerroetan. Integrazioko atalean ikus daitekeen bezala, enpleguarekin lotutako ekintzek ez dute inolako baloraziorik, dela inkestatuek horien berri ez zutelako, dela halako ekintzetan eskumenik ez dutelako.

Ondoren, jarduera-lerroak eta inkestatuen partaidetza izan duten ekintzak aztertuko ditugu, eta ekintza horiei eusteko arrazoiak ere adieraziko ditugu (izan ere, kasu guztietan adierazi dute inkestatuek ekintza horiei eutsi egin behar zaiela). Lehenengo jarduera-lerroari dagokionez (lehenengo harrera, 2. taula), ezinbestekotzat jotzen dute inkestatzaileek harrera-protokoloaren, baliabideen gidaren eta banako eta taldeko arretaren bidez arreta ematen jarraitzea etorkinei. Bestalde, euskara ikasten hasteko ikastaroak ere ezinbesteko zerbitzutzat jotzen dituzte inkestatuek.

2. TAULA. LEHENENGO HARRERAKO EKINTZEI EUSTEKO ARRAZIOAK.

LEHENENGO HARRERA	
Harrera protokoloa	Migraziaren fenomenoaren etengabekoa da eta hau funtsezko zerbitzua da Gidaliburu praktikoa da pertsonen beharrezko informazioa eduki ahal dezatela lehen kontaktu batean
Baliabideen eskuliburua	Informazio interesgarria
Euskarara hurbiltzeko ikastaroak	Datorren pertsonak euskara ezagutu eta ikas dezala
Etorri berriei baliabideen aurkezpen pertsonalizatua	Pertsona bizi den ingurunean "murgiltzeko" funtzioa betetzen du

«Integrazioa» jarduera-lerroari dagokionez, sei ekintzei –ondoren bildutakoei– eutsi behar zaiela pentsatzeko arrazoiak aurkezten dira 3. taulan. Ikus dezakegunez, funtsezko erreminta gisa eutsi behar zaio sailen arteko koordinazioari, inkestatutako pertsonen ustez, lagungarria baita toki-administrazioko langileek uler dezaten plana abiaraztea garrantzitsua dela. Gainerako ekintzen kasuan, gakoa zera da, euskara, etxebizitza eta informazioaren hedapena beharrezkotzat jotzen direla integrazio hobea lortzeko.

3. TAULA. INTEGRAZIOKO EKINTZEI EUSTEKO ARRAZIOAK.

INTEGRAZIOA	
Udal Sailen jarduera, zerbitzuak eta prestazioak aztertzea	Sailarteko indarberritzearen kultura Beharrezkoa da departamentuaren profesionalentzat Departamentu guztiek, lan eremuaren arabera, pertsona etorkinei zuzendutako akzioak burutu behar dituzte
Udal informazioa hedatzeko euskarrien testuak eta irudiak berrikustea	Pertsona etorkinak jakinarazteko eta integratzeko modua da
AISA programa berrikustea	Euskara ikastea beharrezkoa da bere integrazioarako.
Babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko informazioa eta Bizigune programari buruzko informazioa ematea	Beharrezkoa da erabiltzaileentzako arretan Informazio interesgarria
Bizitokiari buruzko informazioa argitzea eta baita diru-laguntza eta zerbitzuei buruzkoa ere	Beharrezkoa da erabiltzaileentzako arretan Informazio interesgarria
Ikastetxeetatik kanpo, hizkuntza indartzeko proiektuak martxan jartzeko aukerak	Iritsitako umeek euskara erabili ahal dezatela eskolatik kanpo eta bere integrazioan gauzak errazteko eta laguntzeko garrantzitsua delako.

Bizikidetzaren atala da, bestalde, irabazi-asmorik gabeko entitateek gehien ebaluatu duten atala. 4. taulan ikus daitekeen bezala, ekintza asko udalerriko elkarte-sarearen sustapenera, segimendura eta partaidetzara bideratuta daude, baita kulturen arteko bizikidetzara eta Eibarren bizi diren pertsonen ezagutzara eta sensibilizaziora ere.

4. TAULA. BIZIKIDETZAKO EKINTZEI EUSTEKO ARRAZIOAK.

BIZIKIDETASUNA	
Boluntariotza sustatzea	Boluntariotza eta asoziazionismoa funtzezkoak dira diskriminazio egoeran dauden pertsonen parte-hartze sozial eta politikorako (etorkinak eta emakumeak). Emakume etorkinek diskriminazio bikoitza pairatzen dute eta boluntarioek posible egiten dute eta bultzatzen dute bere parte-hartzea eta kulturen arteko bizikidetasuna, baita ere emakumeen arteko elkartasuna eta ahalduntzea.
Herriko elkarteekin bitartekaritza-lanak egitea	Oinarrizkoa ekintza da bizikidetasun kulturalaren sustapenerako eta emakumeen ahalduntzerako, modu pertsonalean eta kolektiboan ere.
Kulturak transmititzeko ekimenak babestea	Garrantzitsua da espazio publikoen lan lerroan jarraitzeko. Hauek bizikidetasun baketsuaren esparruan mugituz, parte hartzen duten aktore guztiak bertakotuz.
Kulturen Festa antolatzea	Kultura guztien elkarkidetzeta eta jendeak gure ohiturak ezagutzeko egun bat da
Kulturen arteko elkartzeguneak sortzea aintzat hartzea	Kulturen-arteko topaketa laguntzeko eta aurreiritziak apurtzeko
Zurrumurruen kontrako sensibilizazio kanpaina burutzea	Beharrezkoa da bizikidetasunaren eta kultura-artekotasunaren alde sensibilizazio kanpainak egitea
Etorkin komunitateen ezagutza sustatzea	Aurreiritziekin apurtzeko, beharrezkoa da Eibar osatzen duten etorkinen komunitate desberdinen errealitatea ezagutzea
Jokabide onak aitortzeko ekintzak burutzea	Beharrezkoa delako oraindik
Parte-hartze gune guztietan etorkinek bertarako gonbita izango dutela bermatzea	<ul style="list-style-type: none"> · Beharrezkoa da erabiltzaileentzako arretan · Bizikidetasuna egon dadin, etorkinak eremu guztietan egon behar dira · Sustapenez eta sensibilizazioaz aparte, zuzeneko parte-hartzea eta elkarekintza funtsezkoa da etorkin-elkarteekin, espazio publikoan ezaguera hobea izateko eta elkarekintza handiagoa sortzeko
Immigrazio Mahaia sortzea	Pertsona etorkinen parte-hartzea eta informazioa ziurtatzeko

Laugarrenik, barne-antolamenduko ekintzei dagokienez, Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Plana ezagutzen zuten pertsonak ezinbestekotzat jotzen dute ekintza horietako hiruri eustea, bere garaian planaren berri izateko eta haren ekintzak baloratzeko modu ona zela argudiatuta.

5. TAULA. BARNE-ANTOLAMENDUKO EKINTZEI EUSTEKO ARRAZOIAK.

BARNE ANTOLAMENDUA	
Planaren aurkezpen-jardunaldia	Informatuta egoteko.
Plana Udalaren web-orrian jartzea	Edozein ekintza edo proiektu proposatzeko eskatzen ditugun datuak direlako. Proposamenak informazio enpirikoetatik sortu behar dira
Planaren emaitzak baloratzeko jarduna	Immigrazio kontuetan egiten dena ezagutzeko eta balioesteko

Azkenik, Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planari 7,6 puntuko batez besteko puntuazioa eman diote inkestatuek; beraz, Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planean esku hartu duten edo haren berri izan duten pertsonak oso puntuazio ona eman diote.



4. ONDORIOAK

Aldez aurretik eskuragarri zegoen informazio guztian eta ebaluazio hau egiteko lanean lortu den informazioan oinarrituta, zenbait arazo azpimarratu ditzakegu txosten honen ondorio edo laburpen modura.

Lehenik eta behin, ebaluazio-irizpideekin -bai segimendu edo prozesukoekin bai emaitzenekin- loturiko prozedura-arazo bat nabarmendu behar da. Ebaluazioaren lehen zatian ikus daitekeen bezala, segimendu-adierazleak baliatu dira, baina oso orokorrak eta xehetasun gutxikoak izan dira. Horregatik, ezin izan da hain sakonki egin ebaluazioa, alderdi horri dagokionez. Emaitzen adierazleei dagokienez, planak ez du halakorik eta, horrenbestez, ezin izan dira landu.

Kontuan izanik aurki 2018-2022ko Bizikidetzeta Plana egingo dela, ezinbestekotzat hartzen dugu bai segimenduko ebaluazio-adierazle xehatuak bai emaitza-adierazleak txertatzea, geroko ebaluazioa askoz ere zehatzagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Oro har, esan daiteke Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Planaren (2012-2016) betetze-maila handi eta zuzen samarra izan dela. Zenbait ekintza ezin izan dira gauzatu behar bezala, baina gehienak bai, eta hori nabarmentzeko modukoa da.

Cutxien garatu diren eremu edo helburuak, beharbada, etorkinen partaidetza sozial eta politikoarekin lotutakoak dira, baita udalaren barne-erakundearekin lotutakoak ere. Horregatik, hurrengo planak alderdi horiek bildu behar ditu, horiek azpimarratzeaz gain. Horri gagozkiola, nabarmentzekoa da gehiago azpimarratu direla harrerarekin lotutako ekintzak integrazioarekin lotutakoak baino, eta Udalaren barne-koordinazioarekin eta transbertsalitatearekin zerikusia duten arazoak ez direla hainbeste garatu.

Online galdetegiaren lagina kontuan izanik, eta alde batera utzi gabe galdetegia egin duten pertsonetako askok ez zutela planaren berri, zaila da ebaluazioaren atal horri buruz ondorio eztabaidaezin eta argiak ateratzea. Hala eta guztiz ere, ezjakintasun-maila bera adierazle garrantzitsua eta interesekoa da, immigrazioaren alorrean zuzenean inplikaturik dauden pertsonen eta eragileen artean ere gertatzen baita. Jada adierazi dugun bezala, II. Planean jasota zeuden bai Udalaren barnean bai kanpora begira hura hedatzeko eta zabaltzeko aurreikusita zeuden ekintza zehatzak. Edonola ere, eta online galdeketak eman dizkigun datuak aztertuta,

interesgarria izango litzateke arazo hori kontuan izatea 2018-2022ko Bizikidetzeta Plana aurkezteari begira, jendeak planaren berri neurri handiagoan izateko eta hura gizartean ezagutzera emateko balio dezaketen ekintzak baloratzeaz gain, dela prentsaurrekoen bidez, dela gai horretan interesa duten eragileentzako aurkezpenen edota aurkezpen orokorragoen bidez.



I. ERANSKINA. EBALUAZIORAKO ONLINE GALDEKETA

EIBARKO IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANAREN (2012-2016) EBALUAZIOA

EKINTZEN EBALUAZIOA

1. Ezagutzen al duzu Eibarko Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko II. Plana (2012-2016)?

- Bai
- Ez

2. Nola ezagutu duzu?

3. Zer ekintzatan hartu duzue parte zuk edo zure sailak?

- LEHENENGO HARRERA: Harrera-protokoloa
- LEHENENGO HARRERA: Baliabideen gida
- LEHENENGO HARRERA: Itzulpen-sistema
- LEHENENGO HARRERA: Harrera-sare informala
- LEHENENGO HARRERA: Euskara ikasten hasteko ikastaroak
- LEHENENGO HARRERA: Alfabetatze-eskola
- LEHENENGO HARRERA: Iritsi berrien aurkezpen pertsonala/taldekoa

- INTEGRAZIOA: Jardueren, zerbitzuen eta prestazioen berrikuspena, sailen artekoa
- INTEGRAZIOA: Udal-informazioa hedatzeko testuen eta irudien berrikuspena
- INTEGRAZIOA: Udalaren webgunearen egokitzapena
- INTEGRAZIOA: AISA programa berrikustea
- INTEGRAZIOA: Hizkuntza-boluntariotzaren sustapena (euskara eta gaztelania)
- INTEGRAZIOA: Gizarteratze-hitzarmenak egitea
- INTEGRAZIOA: Larrialdi-baliabideez hornitzeko ekimenak
- INTEGRAZIOA: Tokiko enpresarientzako sentsibilizazio-kanpainak
- INTEGRAZIOA: Lanerako prestakuntzaren eskaintza
- INTEGRAZIOA: Ekintzaileei lagun egitea
- INTEGRAZIOA: Babes ofizialeko etxebizitzetara eta Bizigune programari buruzko informazioa
- INTEGRAZIOA: Ostatuari eta prestazio eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko informazioa
- INTEGRAZIOA: Sentsibilizazioa eskola-arloan
- INTEGRAZIOA: Hizkuntza-errefortzua ikastetxetik kanpo
- BIZIKIDETASUNA: Boluntariotzaren sustapena
- BIZIKIDETASUNA: Asoziazionismo formalari buruz lagun egitea
- BIZIKIDETASUNA: Udalerriko elkarteekin bitarteko gisa jardutea
- BIZIKIDETASUNA: Kulturen transmisiorako ekimenetan laguntzea
- BIZIKIDETASUNA: Kulturen Festa egitea
- BIZIKIDETASUNA: Kulturen arteko topaguneen sorrera baloratzea
- BIZIKIDETASUNA: Zurrumurruen kontrako sentsibilizazio-kanpaina
- BIZIKIDETASUNA: Etorkin-komunitateen ezagutza sustatzea
- BIZIKIDETASUNA: Oroitzapenezko deklarazio instituzionalak egitea eta zabaltzea
- BIZIKIDETASUNA: Jardunbide egokiak aitortzeko ekintzak
- BIZIKIDETASUNA: Etorkinak partaidetza-gune guztietara gonbidatzea
- BIZIKIDETASUNA: Immigrazio Mahaia sortzea
- BARNE-ANTOLAMENDUA: Plan hau sustatzea
- BARNE-ANTOLAMENDUA: Udaleko sailen aurrekontuaren zati bat planean bildutako ekintzetara bideratzea
- BARNE-ANTOLAMENDUA: Langile teknikariei eta politikariei immigrazio-prestakuntza eskaintzea
- BARNE-ANTOLAMENDUA: Plana aurkezteko jardunaldia
- BARNE-ANTOLAMENDUA: Planerako sarbidea udalaren webgunean
- BARNE-ANTOLAMENDUA: Plana baloratzeko jardunaldia
- Ezein ekintzatan ez

(EKINTZA BAKOITZEKO)

Zure sailak/entitateak zer eginkizun nagusi izan ditu ekintza horretan?

a. Ekintza hori bete da?

Bai

Ez

Ez daki/Ez du erantzun

b. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik ez da bete?

- Oraindik garatzen ari delako
- Interes-faltagatik
- Denbora-faltagatik
- Baliabide ekonomikoen faltagatik
- Giza baliabideen faltagatik
- Ez duelako funtzionatu
- Beste arrazoi batengatik: _____

c. 1etik 10era, kontuan izanik 1 «batere garrantzitsua ez» dela, eta 10, berriz, «erabat garrantzitsua», nolako iruditzen zaizu ekintza hori?

Batere garrantzitsua ez	Erabat garrantzitsua
1	10

d. Eutsiko zenioke ekintza horri hurrengo planean?

Bai
Ez

e. Zergatik?

(INKESTA EGIN ZAIEN ETA PLANA EZAGUTZEN DUTEN PERTSONA GUZTIENTZAT)

4. Sailen edo ekintzaren bat erantsiko zenioke III. Planari?

Bai
Ez
Ez daki/Ez du erantzun

5. (Erantzuna baiezkoa bada) Zein edo zeintzuk?

6. 1etik 10era, nola baloratuko zenuke, oro har, II. Plana?

DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK

a. Adina

b. Sexua

c. Honako hauetako kide da:

- Kidego politikoa
- Toki-administrazioa
- Beste administrazio batzuk
- Irabazi-asmorik gabeko entitateak
- Etorकिनen erakundeak, irabazi-asmorik gabeak
- Sektore pribatua
- Beste bat (mesedez, zehaztu)

